

Bi metro

Antton Izagirre

Koronabirusa beste gairik egon ez balitz bezala eman ditugu azken hilabeteak. Gertakari gehienek osagai hura zuten tarteko. Zorionez hasiak gara bestelako interesak erdiguanean jartzen. Zoritxarrez, lehengo lepo beretik, jarrera zaharrak berriro nahi dituzten ebidentziak ditugu. Bi metroko distantzia soziala ezarri digute. Bi metro, bi begirada, bi neurri, bi moral, bi etika erabiltzera deitzen gaituzte.

Bata hangoa. Arrazakeriak eragindako George Floyden hilketa makurra irmotasunez salatzerakoan, belauna lurrari atxiki eta ukabila gora, ez dute azpimarra na-

gusia heriotzaren aurkako protestetan kaleetan egon diren liskar, sute, txikizioen salaketan jarri. Gustatu ala ez, ados egon ala ez, liskarrak, iskanbilak eta polizien eta ondasunen aurkako oldarraldiak, hilketak sorturiko ondoriotzat hartu ditugu hein handi batean. Gertakari larriena hilketa bera izan dela garbi geratu da gehienon kontzientzian.

Bestea hemengoa. Euskal Herriko preso politikoen urrutiratzea, sakabanaketa eta koronabirusak areagotu dien isolamendua, ziurgabetasuna, kutsatze arriskua, familiakoen egon ezina eta heriotza arriskuak sistematikoki isilarazi dituzte.

Horren aurrean, ondorioetan jarri dute azpimarra, protesta eta salaketa pintaketak lehen lerrora ekarri dituzte, alarma itxuraz eta gaitzespen eskariz. Beste behin, sakoneko arazoa nabarmentzen duen behatzari begira jarri dira lelo moduan.

Ondo ezaguna dugu jarrera hartze hori; ez da inozoa, ezta neutrala ere. Garai berrietarako, morala zaharkitua geratu zaien arren, balio izan die etekin politikoen ehizan jarduteko. Horrelakoetan, informazio eskubidea arrazoitzeko baliatu beharrean, propagandarako erabiltzen da. •

Mezuak irauli

Miren Azkarate
Badiola

Ez sartu eskuak poltsikoetan, ez jarri sudadera bat, ez atera kamiseta gabe, izan beti zure jendea gertu, ez atera berandu, ez atera inoiz dendatik erositakoaren tiketa gabe txikle pakete ziztrin bat bada ere, ez erakutsi inoiz zu eta beste baten artean arazorik dagoenik, ez atera inoiz etxetik zure identifikazio txartelik gabe, ez gidatu inoiz maukarik gabeko kamiseta batekin, ez jarri buruan txapelik edo zapirik, ez begiratu emakume kaukasoar bat, polizia batek atxilotzen bazaitu kasualitatez ez erantzun eta berak dioena egin, atxilo-

tzen bazaituzte ez eskatu haien identifikazio zenbakia ez beste ezer...».

Sareetako bideo batean entzun nituen hitzok. Momentuan konturatu nintzen askotan entzun ditudan gomendio edo arauak zirela, batzuk berdin-berdinak eta besteak testuingurua eta pertsonaiak aldatuta baina esaldi berberak. «Ez jantzi minigona inor probokatu nahi ez baduzu, kamiseta hori aldatu eskote handia duela, ez iritsi berandu etxera, etorri ezagun batekin, ez hitz egin ezezagunekin, ez ireki etxeko atea inori, ez erresistitu: utzi egi- ten bestela okerragoa izango da...».

Beldurrean eta desorekan eraikitako harremanak oinarri dituen mundu batean bizi gara. Zergatik ez ditugu mezuak norabidez aldatzen? Hau da, zergatik ez dizkiegu gure haur zuriei eta mutilei bereziki txikitatik berdintasun, elkartasun eta errespetuan oinarritutako mezuak erakusten? «Ez eraso inori, inor ez da bestea baino gehiago, errespetatu eta zaindu zure ingurukoak, zailtasunak dituenari laguntza eskainiozu, behar duenari eman, jantzi dadila eta ibili dadila nahi duen bezala, gauaz gozatzeko aukera guztiona da...». •